

Zer egin dezakegu?

Administrazioak legez behartuta daude airearen kalitatea ebaluatzeraz, herritarrek informatzeraz eta kalitatea eskas den tokietan hobekuntza-planak abiarazteraz.

Horregatik, hau guztia exijitu behar dugu: informazio argi-argia, airearen kalitatea hobetzeko emergentzia-planak eta ekinbide estrategikorako direnak argitaratzea, osasun publikora bideratuta baliabideak gehitzea. Aldarrikapen hauek udal-agintariei nahiz Komunitate Autonomoetakoiei helarazi behar dizkiegu, baita Gobernu Zentralari ere, airearen kalitateari buruzko araudia betearaz dezan.

Gainera, ez ahaztu ingurumen-arazo oro jokabide indibidual askoren ondorioa dela. Horregatik, autoa ezinbestekoa denean bakarrik erabili, eta oinez, bizikletaz edo garraio publikoz joan zaitez tokietara. Zeure osasunak, eta beste herritarrenak, eskertuko dizute.

www.ecologistasenaccion.org

Andalucía: Parque San Jerónimo, s/n, 41015 Sevilla Tel./Fax: 954903984
andalucia@ecologistasenaccion.org

Aragón: C/ Cantín y Gamboa 26, 50002 Zaragoza Tel./Fax: 976398457
aragon@ecologistasenaccion.org

Asturies: C/ San Ignacio 8 bajo, 33205 Xixón Tel: 985337618
asturias@ecologistasenaccion.org

Canarias: Paseo de Chil 13, 35014 Las Palmas de Gran Canaria Tel: 928362233 -
922315475 canarias@ecologistasenaccion.org

Cantabria: Apartado nº 2, 39080 Santander Tel: 942240217
cantabria@ecologistasenaccion.org

Castilla y León: Apartado nº 533, 47080 Valladolid Tel: 983210970
castillayleon@ecologistasenaccion.org

Castilla-La Mancha: Apartado nº 322, 19080 Guadalajara Tel: 659155339
castillalamancha@ecologistasenaccion.org

Catalunya: Can Basté - Passeig. Fabra i Puig 274, 08031 Barcelona
catalunya@ecologistesenaccio.org

Ceuta: C/ Isabel Cabral nº 2, ático, 51001 Ceuta ceuta@ecologistasenaccion.org

Comunidad de Madrid: C/ Marqués de Leganés 12, 28004 Madrid
Tel: 915312389 Fax: 915312611 comunidaddemadrid@ecologistasenaccion.org

Euskal Herria: C/ Pelota 5, 48005 Bilbao Tel: 944790119
euskalherria@ekologistakmartxan.org

Extremadura: C/ Vicente Navarro del Castillo bl.A ptal 14, 06800 Mérida
Tel: 609681976 extremadura@ecologistasenaccion.org

La Rioja: C/ Carnicerías 2, 1º, 26001 Logroño Tel./Fax 941245114
larioja@ecologistasenaccion.org

Melilla: C/ Colombia 17, 52002 Melilla Tel: 630198380
melilla@ecologistasenaccion.org

Navarra: C/ San Marcial 25, 31500 Tudela
Tel: 626679191 navarra@ecologistasenaccion.org


País Valencià: C/ Tabarca 12 entresol,
03012 Alacant Tel: 965255270
paisvalencia@ecologistesenaccio.org

Región Murciana: C/ José García
Martínez 2, 30005 Murcia Tel: 968281532 -
629850658 murcia@ecologistasenaccion.org

Informazio gehiago:
airelimpio@ecologistasenaccion.org
www.ecologistasenaccion.org/aire



Trafikoa eta airearen kutsadura



EKOL  **GISTAK**
m a r t x a n

Diru-laguntza:





Airearen kalitatea

Gure hiri eta herrietako airearen kalitatea arian-arian galtzen ari da, eta horrek, ingurumen-arazo serioa izateaz gainera, argiro mehatxatzen ditu herritarren osasuna eta ongizatea. Kutsaduraren aldirik kritikoenak neguan nahiz udan gertatzen dira, neguan, atmosfera egonkortzen duten antizikloi iraunkorrenatik, kutsatzaileen sakabanaketa galarazten baitute, eta udan, ozono troposferikoagatik, ugaria izaten baita. Baina arazo hau beste urtaroretan ere gertatzen da eta, horrela, hiri eta herri askok urteko hainbat unetan kutsadura handia pairatzen dute.



Motordun ibilgailuak etengabe hazten ari dira, eta eurak dira arnasten dugun airearen degradazio-eragile nagusiak. Toki jakin batzuetan beste eragile batzuek ere garrantzia dute, hala nola zentral termikoek,



industriak... Gainera, autobia handi, autopista eta aireportuen inguruetan kutsadura-arazo handiak egoten dira.

Autoa eta hiria

Autoa da, zalantzarik gabe, hirietako kutsadura atmosferikoaren iturburu nagusia. Airearen kalitatea berreskuratuko bada, ezinbestekoa da hiriak arrazionalizatzea, motor bidezko mugikortasuna eta autoaren gehiegizko erabilera txikiagotuz. Horretarako urbanismo barreiatuaren hazkundera murrizteko neurriak hartu beharko dira, eta aldi berean gutxien kutsatzen duten garraioak bultzatu, hala nola garraio publikoa, oinezko




mugikortasuna eta bizikleta.

Beraz, neurri jakinak aplikatu behar dira autoa erabiltzeko gogoia apaldu eta autoen inpaktuak biguntzearen, batez ere ingururik kutsatuenetan. Hona hemen neurri horietariko batzuk: espaloiak zabaltzea eta autoen tokia estutzea, abiadura mugatzea, aparkatzeko aukera murriztea, hirietako disuasio-bidesariak etab. Aldi berean, garraio publiko hobea eta motorrik gabekoa bultzatu behar dira: BUS-errei berezituak, oinezko-aldeak gehitzea, oinezko ibilaldiak sustatzea; bizikletak ibiltzeko eta aparkatzeko tokiak sortzea eta babestea; bide "baketuak" erreformatzea, arriskurik gabeko garraio mota desberdinek partekatua izan daitezen, bizikletak garraio publiko guztietan onartzea...

Garraio publikoaren erabilera sustatzearen aldekoak gara, eta garraio mota desberdinen artean, inpaktu gutxien sortzen dutenak aldeztu ditugu, zehazki, gutxi kutsatzen duten hiri-garraio ibilgailuak, energiaren aldetik eragingarriak.

Neurriok planifikatu, ezarri eta hiriaren garapenarekin koordinatzeko biderik onena, hiriko mugikortasun iraunkorrerako planak egitea eta burutzea da, herritarrek eta elkarte sozialek parte hartuta.

Gainera, oraingo joeraren aurka, aire-garraioak dituen pizgarriak kendu behar dira eta haren erabilera mugatu. Era berean, tasa ekologikoak ezarri behar zaizkio autoen eta hegazkinen erabilerari, baliagarriak izan behar dutenak garraio kolektiboa, oinez egiten dena eta alternatiboa hobetzeko.



Kutsadura eta osasuna

Kutsadura atmosferikoak modu intentsu batez eragiten dio gure osasunari, baina beti ez da aldi laburretan nabaritzen. Ikerketek erakutsi dute erlazioa duela arnas gaixotasunen sorrerarekin eta larriagotzearekin, bai eta elkartutako beste gaixotasun batzuekin ere, baskularrekin eta minbiziekin kasu. Orobat, argi dago erlazioa duela alergien ugaltzearekin, gaixotasun horiek izanik hainbat pertsonen bizitza-kalitatea gutxitzen dutenak. Arazoak tamaina eskerga du: Ingurumen-ministroak esan duenez, kutsadura atmosferikoak urtero 16.000 pertsonen heriotza goiztiarra eragiten du Espainiar Estatuan, auto-istripuetan baino bost aldiz gehiago!

Europako legedia gero eta kutsadura-maila baxuagoak gomendatzen ari da hirietako osasunaren mesederako, baina, aldi berean, Espainiar Estatuan gero eta txarragoa da airearen kalitatea.

Arazoa larria bada ere, Estatuaren administrazio gehienetan ez da neurri eragingarriak hartu. Frogatuta dago kutsadura-mailetan gutxi jaistea nahikoa dela herritarren osasunean ondorio positiboak berehala egoteko. CAFE delako europar programaren arabera, airearen kalitate txarrak eragindako kostu ekonomikoak askoz handiagoak dira egoera hobetzeko neurriek eragingo luketena baino.

www.ecologistasenaccion.org/aire web-orrian arazo honen eta konponbideen gaineko informazio ugari duzu eskuan

